



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

### EZ OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2015IPLE0002

**Eguna:** 2015-02-04

**Ordua:** 19:00-19:50

**Tokia:** Areto nagusia

#### Bertaratuak

- Andoni Gartzia Arruabarrena	EHBildu
- Maite Olatziregi Esparza	EHBildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz	EHBildu
- Berta Arozena Bergara	EHBildu
- Isabel Otero Glorie	EHBildu
- Raul Redín Hernández	EHBildu
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	Hamaikabat

#### Bertaratu ez direnak

- Agin Laburu Rezola	EHBildu
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Imanol Lizarralde Marín	Hamaikabat

#### Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

#### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N°	ORDEN DEL DIA
<b>Larraburu: Donostiako Udalak emandako erantzunari buruzko txostena</b>	<b>1</b>	Larraburu: Informe sobre la respuesta dada por el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián
<b>BOE erosketaren txostena</b>	<b>2</b>	Informe sobre la compra de VPO
<b>5/2014ko kreditu transferentziaren berri eman</b>	<b>3</b>	Dar cuenta de la transferencia de crédito 5/2014



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

<b>2015eko Aurrekontua. Hasierako onarpena</b>	<b>4</b>	Presupuesto 2015. Aprobación inicial
<b>Astigarragako Parrokiaren lokala lagatzea: alegazioak ebaztea</b>	<b>5</b>	Cesión de local a Parroquia de Astigarraga: resolución de alegaciones
<b>Martindegi auzoko hitzarmena Hernaniko Udalarekin. Berrespena</b>	<b>6</b>	Ratificación convenio con Ayuntamiento de Hernani: Martindegi
<b>Bateraezintasun txostena onartzea</b>	<b>7</b>	Aprobación informe de incompatibilidad

### Esan-eginak eta erabakiak

Previa declaración de urgencia aprobada por unanimidad se acuerda incluir en e lorden del dia la propuesta de la Mesa de Contratación.

#### 1. Larraburu: Donostiako Udalak emandako erantzunari buruzko txostena

Otsailaren 2ko Ogasun Batzordeak aldeko txostena eman du, Astigarragako Udalak egindako erreklamazioari Donostiako Udalak emandako erantzunaren gainean emandako txostenari buruzko txostenari dagokionez; Udalbatzari proposatu zaio txosten horretan jasotako erabakiak hartzea, zehazki, honako hauek:

Lehena.- Astigarragako Udaleko aholkularitza juridikoak eginiko txostenaren arabera Donostiako Udalak eginiko erreklamazioa ezestea.

Bigarrena.- Donostiako udalbatzari erreklamazioa lursail horien titulartasuna eskualdatzeko erabakia, Astigarragako Udaletxearenak direlako.

#### 1. Larraburu: Informe sobre la respuesta dada por el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastian

Tras informar favorablemente la Comisión de Hacienda de fecha 2 de febrero el informe emitido en relación a la respuesta dada por el ayuntamiento de Donostia a la reclamación realizada por el ayuntamiento de Astigarraga se propone al pleno la adopción de los acuerdos contenidos en dicho informe y que se concretan en:

Primero.- Desestimar la reclamación realizada por el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián en base al informe emitido por la asesoría jurídica del Ayuntamiento de Astigarraga.

Segundo.- Solicitar al Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián adopte el acuerdo de traspaso de la titularidad de los citados terrenos por considerar que corresponden a este Ayuntamiento.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

Proposamena bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad.

### 2. BOE erosketaren txostena

Otsailaren 2ko Ogasun Batzordeak aldeko txostena eman du, Mungia Valores Financieros SL sozietateari Babes Ofizialeko 8 Etxebizitza erosteko egindako proposamenaren gainean kontu-hartzaileak emandako txostenari buruzko txostenari dagokionez; Udaltzari proposatu zaio txosten horretan jasotako erabakiak hartzea, zehazki, honako hauek:

Lehena.- Babes Ofizialeko 8 Etxebizitza erostea (atxikitako trasteleku eta garajeekin) onartzea, azken prezioa 858.000,00 euro izanik (BEZa barne).

Bigarrena.- Mungia Valores Financieros SL sozietateak Udalari zorduntzen dizkion zorrak konpentsatzea, eraikuntza-lizentziari dagokion Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga dela-eta, ordaintzeke dauden zenbatekoak 237.596,02 euro eta 509.157,00 euro izanik (hots, hirigintza-aprobetxamenduaren % 10, Udalari dagokiona); horrela, zorra 746.753,00 eurokoa da guztira.

Hirugarrena.- Mungia Valores Financieros SL sozietateari 111.246,98 euro ordaintzea, 2014ko aurrekontuaren kreditu-aldaketan gaitutako partidarako karguarekin.

Laugarrena.- Aipaturiko eskualdatzean Udalak 5 etxebizitza lortzen dituzenez hirigintza aprobetxamenduaren %10aren

### 2. Informe sobre la compra de VPO

Tras informar favorablemente la Comisión de Hacienda de fecha 2 de febrero el informe en relación al informe emitido por el interventor en relación a la propuesta de compra de 8 viviendas de VPO a Mungia Valores Financieros SL. se propone al pleno la adopción de los acuerdos contenidos en dicho informe y que se concretan en:

Primero.- Aprobar la compra de 8 viviendas de VPO con trasteros y garajes anejos por el precio final de 858.000,00 euros (IVA incluido).

Segundo.- Ejecutar la compensación de las deudas que Mungia Valores Financieros, S.L. adeuda al Ayuntamiento del ICIO de la licencia de construcción con un importe pendiente de 237.596,02 euros y 509.157,00 euros, relativo al 10% de aprovechamiento urbanístico que corresponde al Ayuntamiento, lo que totaliza una deuda de 746.753,00 euros.

Tercero.- Abonar a Mungia Valores Financieros, S.L. el importe de 111.246,98 euros, con cargo a la partida habilitada en la modificación de créditos del presupuesto 2014.

Cuarto.- Como quiera que en la transmisión precitada, el Ayuntamiento obtiene 5 viviendas como pago en



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

ordainketaren truke, eta kontuan harturik eskualdatze honen BEZa (5\*9750€=48.750€) salbuetsita gelditu daitekeela, promotorak edo erakunde sustatzaileak, konpromisoa hartzen du, BEZa itzultzea baldin bada, Gipuzkoako Foru Aldundian BEZaren itzulketa hau kudeatzeko eta kopuru hau Astigarragako Udaletxeko kontu korrontean berehala sartzeko.

especie del 10% del aprovechamiento urbanístico, y dado que el IVA imputable a esta entrega en concreto (5\*9750€=48.750€) pudiera ser objeto de exención del IVA, la promotora se compromete a gestionar ante la Hacienda Foral de Gipuzkoa la solicitud de devolución de este IVA, y en caso de otorgarse la misma a reintegrar con carácter inmediato dicho importe ingresando en la cuenta corriente del Ayuntamiento de Astigarraga.

Bostgarrena.- Alkateari erosketa hori egiteko behar diren eskritura eta dokumentu guztiak sinatzeko baimena ematea.

Quinto.- Autorizar al Alcalde a la firma de las escrituras y de cuantos documentos sean necesarios para materializar esta compra.

Proposamena bozkatu ondoren, aho batez onartu da

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad

### **3. 5/2014ko kreditu transferentziaren berri eman**

### **3. Dar cuenta de la transferencia de crédito 5/2014**

20.200 euroko kredituen transferentzia onartzen duen 1023/2014 Dekretuaren berri eman dio alkateak Udalbatzari.

El alcalde da cuenta al pleno del decreto 1023/2014, por el que se aprueba la transferencia de créditos de importe 20.200€.

### **4. 2015eko Aurrekontua. Hasierako onarpena**

### **4. Presupuesto 2015. Aprobación inicial**

Alkateak adierazi du otsailaren 2ko Ogasun Batzordean Aurrekontuen Proiektuari egindako alegazioak ebatzi zirela, eta kontu-hartzaileak 2015eko Aurrekontu Orokorrari buruzko txosten ekonomiko finantzarioa eman duela, 2015eko Aurrekontu Orokorra 7.872.757,85 eurotan kuantifikatu dela (diru-sarrera eta gastuetan orekatuta),

El alcalde señala que en la Comisión de Hacienda de fecha 2 de febrero se resolvieron la alegaciones formuladas al Proyecto de Presupuestos y que el interventor ha emitido el informe económico financiero relativo al Presupuesto General 2015 que se cuantifica en 7.872.757,85€ equilibrado en ingresos y gastos y que en dicho informe consta el informe favorable y la



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

eta txosten horretan jaso direla, batetik, aldeko txostena, eta bestetik, kapituluka xehatutako informazio ekonomikoa, udalaren berezko aurrekontua 7874.649 euro izanik, eta Astigarraga Lantzen SA sozietateari dagokiona, berriz, 209.101 euro.

Era berean, jakinarazi du aurtengo aurrekontua nabarmengarria dela inbertsio esanguratsua duelako, zehazki, 1802.759 euro, eta aurrekontu hori honako hauetan inbertitzea aurreikusten dela: lkastola handitzea; Anuskako urbanizazio-obra, brigadarako lokala, Babes Ofizialeko Etxebizitzak erostea, eta partaidetza-prozesuetan erabakitako inbertsioetarako nahiz zerbitzuak hobetzeko inbertsioetarako 100.000 erreserbatzeko konpromisoak, baita Santiagomendiko inbertsioetarako ere. Adierazi du Aurrekontua osatzeko partaidetza-prozesuak egin direla auzoetan. Plantillari dagokionez, zehaztu du ongizate-zerbitzuak 3 lanpostu izango dituela, orain arteko 2,5 lanpostuen orde. Aurrekontuak udalerriko biztanleen bizi-kalitatea hobetuko duela ere esan du alkateak.

Bixente zinegotziak hartu du hitza, eta Ogasun Batzordean esandakoari buruz, esan du aurkeztutako osoko zuzenketa ez dela onartu, Atez Ateko Zerbitzura 628.000 euro bideratzearekin ez daudelako ados, oso garestia baita; horrenbestez, zinegotziak adierazi du hondakinak jasotzeko modu horren aurka daudela. Bestalde, baieztatu du planteaturiko inbertsio askorekin bat datozela, baina aurrekontuan ez direla biltzen zinegotziaren taldearen aburuz lehentasunezkoak diren hainbat proiekturen lehentasunak, hala nola futbol-zelaiko aparkalekua, Zakurmendegiko bidegorria, eta Santiagomendirako sarbide berria; horregatik, kontrako botoa emango

información económica detallada por capítulos, con un presupuesto del ayuntamiento propio de 7874.649€ y 209.101 correspondiente a Astigarraga Lantzen SA.

Señala que el presupuesto de este año destaca por el importe significativo de la inversión de 1802.759€, donde se recogen la previsiones de ampliación de la lkastola, urbanización de Anuska, compra de viviendas de VPO, local para la brigada, y compromisos de reserva de 100.000€ para inversiones que se decidan en procesos participativos, así como inversiones de mejora de servicios, incluyendo inversiones en Santiagomendi.

Señala que en la confección del Presupuesto se ha realizado procesos de participación por barrios. En materia de plantilla señala que el servicio de bienestar se dotará con 3 plazas en lugar de 2,5 como hasta ahora había. Es un presupuesto que mejorará la calidad de vida de los vecinos del municipio.

Interviene el concejal Bixente quien se remite a lo manifestado en la Comisión de Hacienda y señala que no se ha admitido la enmienda a la totalidad presentada, dado que no están de acuerdo con los 628.000€ que se destinan al Pap, es muy costoso y estamos en contra de este modo de recogida de residuos. Por otra lado estamos de acuerdo con gran parte de las inversiones planteadas, pero no se recogen la prioridades que entendemos tienen el aparcamiento del campo de fútbol, bidegorri de Zakurmendegi, y nuevo acceso para Santiagomendi., por lo que votaremos en contra.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

dutela jakinarazi du.

Alkateak erantzun du, eta gogorazi du Bixentek seinalatutako zenbatekoaren barnean, Garbitaniaz gain, beste hainbat gastu ere hartzen direla, esaterako, San Marko Mankomunitateari edo GHKri dagozkionak, eta horiek ondo dakitela ez gaudela ados egiten ari zaizkigun fakturazioekin.

Esan du gaur egun zerbitzu horren % 64 finantzatzen dela, eta beste legegintzaldietako urte batzuetan zifrak nabarmen txikiagoak zirela. Alkatearen aburuz, futbol-zelaiko aparkalekua ez da lehentasunezko zerbait gaur egun, lehentasun handiagoko beste arazo batzuk baitaude, eta bidegorriari dagokionez, lanak ezin dira zatika egin, segurtasunarekin loturiko hainbat arazo sortuko bailituzke horrek; horregatik, alkatearen hitzetan, Udala Foru Aldundiarekin harremanetan dago, proiektua idatzi da eta gai hori kudeatzen ari dira. Santiagomendiri buruz esandakoari dagokionez, errepide berria egiteko aukera bideraezina dela esan du alkateak, eta egungo sarbidea hobetuz egingo diotela aurre arazo horri. Azkenik, jakinarazi du Urbieta-Ermañako biztanleekin bilera izan dutela eta horien kezka nagusia egungo bidea konpontzea dela.

Bixente zinegotziak hartu du hitza. Proposatutako zuzenketei kasurik ez zaiela egiten esan du, baina bere taldearen ustez, udal-hauteskundearen aurretik egungo alkateak adierazi zuen kontsulta egingo zutela baina oraindik ez dute kontsulta hori egin. Sinadurak bildu ziren, jendeak poltsak ipini zituen balkoietan Atez Ateko Zerbitzuaren aurka protestatzeko, baina ez zaie protesta horiei kasurik egin. Horregatik guztiagatik, bere taldeak Aurrekontua onartzearen aurka bozkatuko duela

Contesta el alcalde que el importe que señala Bixente entran además de Garbitania otros gastos como los del Consorcio y Mancomunidad de San Marko, que bien saben que no estamos de acuerdo con las facturaciones que nos están facturando. Señala que en la actualidad el servicio se financia en un 64%, y que en años de otras legislaturas las cifras eran notoriamente más bajas.

Entiende el alcalde que el aparcamiento del campo de fútbol no es una prioridad en este momento, hay otras prioridades, y en cuanto al bidegorri no se puede atender a trozos por el peligro que generaría en cuanto a seguridad, por lo que estamos en contacto con Diputación y se ha redactado el proyecto y estamos gestionando este tema.

En cuanto a Santiagomendi la posibilidad de hacer una nueva carretera es inviable y abordaremos el tema mejorando el acceso actual, y en cuanto a los vecinos de Urbieta – Ermaña hemos mantenido una reanunci6n y la preocupaci6n de los vecinos es arreglar el camino actual-

Interviene el concejal Bixente quien manifiesta que no se hace caso a las enmiendas que han formulado, pero nuestra opini6n es que antes de la celebraci6n de las elecciones municipales el actual alcalde dijo que harían una consulta y no se ha hecho; se recogieron firma, la gente puso bolsas en los balcones como protesta al PaP y no se ha hecho caso., por lo que votaremos en contra de la aprobaci6n del Presupuesto.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

esan du zinegotziak.

Alkateak hitza hartu du eta honako hau adierazi du: notarioaren arabera, 1.650 sinadura jaso ziren eta ez dakigu denak Astigarragakoak ote diren; parte hartzeko prozesu baterako deialdia egin genuen eta hainbat gairi buruzko kontsulta ugari daude.

Bixente zinegotziak hartu du hitza, eta esan du aurrekontuaren diru-sarren zati batek HIE-9an duela jatorria (Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga gehi % 10), eta beraz, oso egokia iruditzen zaiola sail hori egikaritzeko sinatu zuten hirigintza-hitzarmena (alkateak aurka bozkatu zuen); era berean, Plan Orokorraren idazketan parte hartzeko prozesu bat gauzatu zuten.

Alkateak adierazi du ez zuela **hitzarmen** (korporazio) horren aurka bozkatu, hitzarmen horren aldaketarako baino ez zuela bozkatu, eta berriz ere esan du **Plangintza Orokorrak** (sail horrek) ez duela konpondu **herrian sorturiko behar berriei** (sail horren) egikaritzapenak eskatzen duen ekipamendua; horregatik, Ikastola zabaltzeko arazoari heldu behar izan dio Udalak. Azkenik, Bixente zinegotziak aipatu duen parte hartzeko prozesua zalantzan jartzen du, eta baita gogorarazi ere interesdunek Bidebitarten planteatutako alegazioei ez zitzaizela erantzun.

Proposamena bozkatu ondoren, onartu egin da, aldeko 6 botorekin (EHBildu) eta kontrako 2 botorekin (gainerako zinegotziak).

1. 2015eko Aurrekontu Orokorren hasierako onespina ematea; 7.872.757,85 eurokoa da Aurrekontu

Interviene el alcalde señalando que se recogieron, según notario, 1650 firmas y no sabemos si toda/os son de Astigarraga, convocamos proceso participativo y lo hicimos, y recuerda que son muchas las consultas que se pueden realizar por distintos temas.

Interviene el concejal Bixente quien señala que parte de los ingresos del presupuesto tienen su origen en la AIU\_9, con sus ICIOS y 10%, por lo que considera muy adecuado el convenio urbanístico que firmaron para la ejecución de esa area, y el alcalde voto en contra; añade que hicieron proceso participativo en la redacción del PG

El alcalde señala que no votó en contra **del convenio**, que esta corporación solo ha votado la modificación de ese convenio, e insiste que el Plan General **no ha resuelto el conjunto de equipamientos que demanda la población** (que implica la ejecución de esa área), por lo que el ayuntamiento ha tenido que abordar la ampliación de la ikastola, ... y tendrá que abordar otros servicios. Finalmente, cuestiona el proceso participativo que ha mencionado Bixente, y le recuerda que no se contestó a las alegaciones formuladas por los interesados en Bidebitarte.

Sometida a votación la propuesta se aprueba con 6 votos a favor de EHBildu y 2 votos en contra del resto de concejales, por lo que queda aprobado:

1. Proceder a la aprobación inicial del Presupuesto General 2015 de 7.872.757,85 euros,



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

Orokorra, eta 7.874.649,00 euro Udalaren Beraren Aurrekontuari dagozkio, eta 209.101,00, berriz, Astigarraga Lantzen, SA sozietatearen Aurrekontuari.

2. 2015eko Aurrekontua osatzen duten aurrekontu-egikaritzerako udal-arauak onestea.

3. Plantilla eta LPZ 2015 onestea.

4. 21/2003 Foru Arauan xedatutakoari jarraiki, Udal Aurrekontua eta hori osatzen duten dokumentuak onesteko erabakia jendaurrean jartzea, alegaziorik egiten ez bada behin betiko onetsiko dela adieraziz, erabaki berririk gabe.

correspondiendo 7.874.649,00 euros al Presupuesto del Ayuntamiento Propio y 209.101,00 al Presupuesto de Astigarraga Lantzen, S.A.

2. Proceder a la aprobación de las Normas municipales de ejecución presupuestaria 2015 que integran el Presupuesto.

3. Proceder a la aprobación de la plantilla y RPT 2015.

4. Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 21/2003, someter a información pública el acuerdo de aprobación del Presupuesto Municipal y documentos que lo integran, reseñando que caso de no formularse alegaciones quedará aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

### **5. Astigarragako Parrokiaren lokala lagatzea: alegazioak ebaztea**

Otsailaren 2ko Ogasun Batzordeak aldeko txostena eman du, aurkeztutako alegazioari dagokionez; emandako txostenari jarraiki, eta kontuan hartuz Toki Erakundearen Ondasunen Arautegia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 109. artikuluan eta hurrengoetan eskatutako baldintzak betetzen direla, adostu da, batetik, Oscar Padura jaunak egindako alegazioa ezestea, eta bestetik, Astigarragako parrokiaren alde dohainik behin betiko egindako lokal-lagapena onestea; horrela, erabakia ahalbidetzeko dokumentuak sinatzeko ahalmena ematen zaio alkateari.

Proposamena bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

### **5. Cesión de local a Parroquia de Astigarraga: resolución de alegaciones**

Tras informar favorablemente la Comisión de Hacienda de fecha 2 de febrero el informe en relación a la alegación formulada, conforme al informe emitido se acuerda que teniendo en cuenta que se ha dado cumplimiento a los requisitos exigidos en el artículo 109 y siguientes del Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, se propone la desestimación de la alegación formulada por D. Oscar Padura, y aprobar definitivamente al cesión gratuita del local a favor de la parroquia de Astigarraga facultando al alcalde a la firma de los documentos para materializar el acuerdo.





## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad.

### **6. Martidegi auzoko hitzarmena Hernaniko Udalarekin. Berrespena**

Otsailaren 2ko Ogasun Batzordeak aldeko txostena eman du, Hernaniko Udalarekiko Hitzarmenari dagokionez, eta Udal Korporazioko kide guztiek, aho batez, hitzarmen hori onestea erabaki dute.

### **6. Ratificación convenio con Ayuntamiento de Hernani: Martidegi**

Tras informar favorablemente la Comisión de Hacienda de fecha 2 de febrero el informe en relación al Convenio con el Ayuntamiento de Hernani, los miembros de la Corporación Municipal, por unanimidad, acuerdan la aprobación de dicho convenio.

### **7. Bateragarritasun txostena onartzea**

Langileen Batzordearen irizpena aurkeztu da, egindako 2 bateragarritasun-eskabideei dagokienez; honako hauek proposatzen dira bertan:

1.- Orokorrean, langile guztientzat azpizatitza "osagarri berezia", honako ehuneko eta izendapen hauekin:

- Bateriaezintasuna: % 20
- Dedicazioa: % 30
- Zailtasun berezia: % 50

2.- Funtzionarioei jarduera pribaturako bateragarritasuna esleitzea.

Proposamena bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

### **8. Kontratazio Mahaiaren proposamena**

Kontratazio Mahaiaren proposamena aurkeztu da; honako hauek proposatzen dira:

1.- Aurreko Kontratazio Mahaiaren

### **7. Informe de compatibilidad**

Se presenta el dictamen de la comisión de Personal en relación a las 2 solicitudes de compatibilidad solicitadas, en la que se propones:

1.- Subdividir con carácter general para todo el personal el "complemento específico" con los siguientes porcentajes y denominaciones:

- Incompatibilidad 20%
- Dedicación 30%
- Especial dificultad 50%

2.- Otorgar a los funcionarios solicitantes la compatibilidad para actividad privada solicitada.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad.

### **8. Propuesta de la Mesa de Contratación.**

Se presenta la propuesta de la Mesa de Contratación en la que se propone:

1.- Ratificar el acuerdo de la Mesa de



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

erabakia berrestea, eta, horren arabera, Sasoi Eraikuntzak SL enpresak egindako eskaintza ekonomikoa baztertea, proposamenaren zenbatekoan akats nabaria duelako eta aztertutako dokumentazioarekin bat ez datorrelako.

2.-Asfaltos y Contruccionen Morga SL enpresak egindako eskaintza neurrigabetzat jo zen, eta enpresa horrek eskaintza horri dagokionez aurkeztutako dokumentazioa azertu ondoren zera uste dugu, ez duela baja hori abalatzeko soluzio teknikorik egiaztatzen, ez dituela, halaber, bajaren justifikazio teknikoak zehazten, eta, azkenik, ez duela obra eskaintako prezioan egikaritzeko ohiz kanpoko baldintza egokirik justifikatzen; eta horregatik erabaki dugu:

a.- Aurkeztutako eskaintza bete ezin daitekeela ebaztea, neurrigabeko balioak txertatzearen ondorioz.

b.- Esleipena hurrengo puntuazio onena lortu duen proposamenaren alde egitea, hau da, Construcciones Otegi Gaztañaga SL enpresak aurkeztutako proposamenaren alde.

Bozketa egin da, eta proposamena onartu egin da EHBilduren aldeko 6 botoekin eta gainerako zinegotzien 2 abstentzioekin.

Contratación anterior por la que se excluye la oferta económica formulada por la empresa Sasoi Eraikuntzak, S.L., por comportar error manifiesto en el importe de la proposición y no guardar concordancia con la documentación examinada.

2.- A la vista de la documentación aportada por Asfaltos y Construcciones Morga, S.L. en relación a la oferta realizada, y que fue calificada como desproporcionada, considerar que no acredita soluciones técnicas que avalan dicha baja, ni tampoco precisa las justificaciones técnicas de la baja ni justifica condiciones excepcionalmente favorables que disponga para ejecutar la obra en el precio ofertado, por lo que se acuerda:

a.- Considerar que la oferta presentada no puede ser cumplida como consecuencia de la inclusión de valores deproporcionados.

b.- Acordar la adjudicación a favor de la proposición que ha obtenido la siguiente mayor puntuación y que se corresponde con la formulada por la empresa Construcciones Otegi Gaztañaga, S.L.

Sometida a votación la propuesta es aprobada con 6 votos a favor EHBildu y 2 abstenciones del resto de concejales

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.



**Astigarragako Udala**

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.net

Astigarraga, 2015eko otsailaren 4an

**Xabin Olaizola Lasa  
Idazkaria**